

## Aurkezpen masiboak – Programak kargatu

Webgune honetako programen helburua gainontzekoen aitortenak aurkezteko baimena dutenei (Aurkezle baimenduak eta enpresa holdingak) talde aurkezpenak (aitorpen asko batera) aurkezten laguntzea da.

### Programa motak

#### 1. Aitorpen ugariko fitxategiak sortu (Ondarea eta Sozietateak)

Hauen bidez aitorpen asko (25 gehienez) biltzen dituzten fitxategiak sor daitezke laguntza programen bidez sortutako aitorpen bakarreko Internet formatoko fitxategiak oinarri hartuta.

Jarraibideak prestatu dira programa huez baliatuz sortzen diren aitorpen ugariko fitxategiak non kokatu eta zein izen eta luzapen ipini jakiteko; hementxe daude: **Aitorpenen aurkezpena, Fitxategien bidalketa.**

**Adi.** Gainerako zerga aitorpenetarako ereduak bete eta telematikoki bidaltzeko prestatzen laguntzen duten programek zuzenean sortzen dituzte bidaltzeko balio duten aitorpen ugariko fitxategiak; beraz, horiekin ez dago beste programarik erabili beharrik.

#### 2. Aitorpenen zerrenda ordenadorean bertan

Programa hauen bidez **Fitxategiaren bidalketa** modalitatean aurkeztutako aitorpenen zerrenda sor daiteke ordenadorean bertan, behin erabiltzaileak bidalitako fitxategiak bidali eta aitorpenak **Foru Ogasunak** "elektronikoki zigilatuz" gero.

Programa hauen bidez prozesaturiko fitxategietako aitorpenak soilik zerrendatu daitezke; fitxategiok kargatzeko hona joan behar da: menu nagusia, **Talde aurkezpenak, Prozesatutako fitzategiak kargatu.**

Prozesatutako fitxategiko aitorpenen zerrendak sortzean, ondoko emaitzak izango dira:

Ondarea eta Sozietateak atalean, azalen zerrenda soilik inprimatuko da, aitorpeneko gainerako orriak berez inprimatzen baitute laguntza programek Interneterako aitorpen bakarreko fitxategia sortzean. Azalen zerrenda hau inprimatzeko, PCan Adobe Acrobat 4.05 bertsioa edo handiagoa instalatua izatea beharrezkoa izango da.

BEZ, Atxikipenak eta Zatikako ordainketak atalean, aitorpen osoen zerrenda (orri 1 edo 2) inprimatuko da. Hala egiten denean, aitorpenaren emaitza hartu beharra bada eta ez badago helbideratuta, ordain-gutunak ere inprimatuko dira. Zerrenda hauek inprimatzeko kasuan kasuko zerga-ereduaren PDF inprimaketarako modulua edo laguntza programa instalaturik izan behar da.



## Instalatzeko ohiko prozedura

### Kargatu eta instalatu

1. Webgunean zaudela, sakatu nahi duzun programako Kargatu zutabeko ikonoa.
2. Leiho bat azalduko zaizu eta hiru hauetako bat hautatu beharko duzu:
  - 2.1. Exekutatu programa hau Internetetik.  
Programa PCan kargatuko zaizu eta berez exekutatu da. Hau hautatzen baduzu, egin pantailan agertuko zaizkizun jarraibideek diotena.
  - 2.2. Gorde programa hau diskuan:  
Programa PCean kargatu eta zuk zeuk exekutatu beharko duzu. Horretarako:
    - 2.2.1. Gorde artxiboa disko gogorreko karpeta batean.
    - 2.2.2. Begiratu ea kargatu duzun fitxategiaren tamaina bat datorren zutabearen adierazitakoarekin. Hala ez bada, kargatu berriro.
    - 2.2.3. Exekutatu (klikatu birritan) Setupex artxiboa.
    - 2.2.4. Egin pantailan agertuko zaizkizun jarraibideek diotena.

Programak **Bizkaiko Foru Aldundia** programa-taldearen barruan instalatuko dira, **Ogasun eta Finantza Sailak** egindako gainerako laguntza programak bezala.

### Sarean instalatu

Egin aurrean adierazitakoa, baina disko gogorrean (C:\) kargatu beharrean kargatu zeuk nahi duzun sarearen unitatean. Horretarako, pantailan programa berez instalatuko den direktorioa agertzen zaizunean, sakatu **ALDATU** botoia eta adierazi non nahi duzun gorde.

**Adi.** Programa postuetan exekutatuzeko liburutegi jakin batzuk behar dira, eta beraz programa erabiliko den postu bakoitzean liburutegiok instalatu behar dira. Postuetan programa exekutagarria ez kargatzeko, instalazio guztietan xede direktorioa sare unitate bera izan behar da.

### Gomendioak

1. Programen instalazioa. Sarean instalatzen direnean izan ezik, programa instalatzean ahal bada ez aldatu berez instalatzeko agertzen den sare unitatea, berariaz diseinatuta baitago programen arteko erlazioetarako elementuak (fitxategiak) erraz aurkitzeko.
2. Fitxategiak non gorde zerrendak ordenadorean bertan sortzeko. Definitu karpetak eta kargatu bertan **Foru Ogasunak** prozesatu eta 'elektronikoki zigitatutako' fitxategiak (jarraibideak hemen: **Talde aurkezpena, Prozesatutako fitxategiak kargatu, Zenbait ohar fitxategiak kargatu aurretik**), zeren zerrendak ordenadorean bertan egiteko programek berez jotzen baitute C:\BizkaiBai\nnnn (nnnn = zerga ekitaldia) karpetara zerrendatu beharreko aitopenen fitxategien bila. Jarraibideetan hortxe gordetzea gomendatzen da.

Gomendio hori aintzat hartu ezean, baliteke eragiketaren bat gaizki egitea eta programa bakoitzak behar dituen fitxategiak ezin aurkitu izatea.